# BEHARGINTZA

## FORMAKUNTZA ESKAINTZA LEIOA

## 2023 IKASTAROAK

### IRAILA-ABENDUA

Leioa BEHARGINTZA

Bizkaia
enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo, inclusión social e igualdad



# LEIOA BEHARGINTZA UDALA







**BEHARGINTZA LEIOA**
Mendibil 3

94 400 41 95 - 94 400 80 51
behargintza@leioa.eus
**behargintzaleioa.net**

Behargintza Leioa Zentroa Leioako udalerriko turismoaren eta ekonomiaren garapenaren eta enpleguaren sustapenaren aldeko apustu sendoa da, eta, beraz, enpresa-sareari ez ezik, Leioan bizi diren edo jarduera ekonomikoa hemen finkatu nahi duten pertsonei ere erreparatzen diegu.

Beraz, hurbiltasuneko garapen ekonomikoko egitura bat gara, non udalerriko langabeen prestakuntza edo kualifikazio profesionala hobetzeko ahaleginak bideratzeaz gain, ekintzailetza sustatzea, tokiko merkataritzari eta udalerriko enpresei arreta ematea ere bideratzen diren, edozein tamainatakoak direla ere.

Leioako Udaleko Enplegu, Ekonomia Sustapen, Merkataritza eta Turismo Sailak, gainerako eragileekin batera, gure udalerriaren garapen eta ongizaterako interes komuna modu jasangarri eta ekitatiboan bultzatzen lan egiten du.

## GURE ESTRATEGIAK

- Herri agente guztien ahaleginak bateratu.
- Lana sortu.
- Enpresa eta ekonomi aukera berriak bilatu.
- Herri ekonomiaren sektore desberdinak bultzatu.
- Tokiko agenteak garapenean informazio teknologiek duten garrantzia aintzat eduki.
- Tokiko agenteak suspertu, beraien esku makina bat tresna jarriz.

| 1 | KONPETENTZIA TEKNIKOAK ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAT | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **45 orduko prestakuntza da, eta administrazioko langileei, erdi-mailako arduradunei eta/edo enpresako kudeatzaileei zuzenduta dago. Gai hauen gaineko ezagutzak eguneratuko dituzte: kalitatea; ingurumena/hondakinen kudeaketa; lap eta segurtasun informatikoa.** | | | | |
| | **HASIERA-DATA** 2023/10/18 | **AMAIERA-DATA** 2023/10/30 | **ORDUTEGIA** 09:30-14:30 | **IRAUPENA** 45 | **LEKU-KOPURUA** 12 |
| | **SARTZEKO BALDINTZAK** | | | **TOKIA** | |
| | Behar sozioekonomikoetara egokitzeko, enpresek denbora eta baliabideak ezin hobeto kudeatu eta optimizatu behar dituzte, eta, horretarako, balio anitzeko lantalde bat behar dute. Ikastaro honetan, informatika- eta bulegotika-tresnak erabiltzen ikasiko duzu, aurrekontuekin, kontabilitatearekin eta fakturazioarekin lotutako oinarrizko zereginak burutzeko. Horrez gain, webean eta sare sozialetan bezeroekin eta hornitzaileekin harremanak ezartzeko teknologia digitalak erabiltzen ikasiko duzu. | | | Behargintza Leioa. | |

| 2 | TALDE EKINTZAILEAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako GAZTEDI URIBE KOSTA ekimenaren barruko programa. Zure ideia ekintzaileak proiektu bihurtzen ikasi nahi duzu?**<br>**- Trebetasun eta ezagutza profesional eta pertsonaletan sakontzea.**<br>**- Negozio-eredu bat planifikatzea, hura abian jartzeko garrantzitsuak diren alderdi guztietan lan eginez.**<br>**- Komunikaziorako tresnak eta trebetasunak ematea.**<br>**- Proiektu Ekintzaile oso bat diseinatzea.** | | | | |
| | **HASIERA-DATA** 2023/10/23 | **AMAIERA-DATA** 2023/12/22 | **ORDUTEGIA** 16:00-19:00 | **IRAUPENA** 30 | **LEKU-KOPURUA** 12 |
| | **SARTZEKO BALDINTZAK** | | | **TOKIA** | |
| | Adin tartea: 18-29 urte.<br>Leioa, Berango, Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Urduliz-en erroldatuta. Online/aurrez aurreko formatu mistoa. | | | Enpresa mintegia | |

| 3 | TOKIKO GARAPENERAKO 3R PROGRAMA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lurralde historikoko udalen eta toki garapeneko agentzien bitartez enplegu-sustapena programa sustatu du, langabezian dauden pertsonei lan-munduan txertatzen lagundu eta langabezia-egoera betikotzea ekiditeko.** | | | | |
| | **HASIERA-DATA** 2023/10/25 | **AMAIERA-DATA** 2024/03/31 | **ORDUTEGIA** 09:30-13:30 | **IRAUPENA** 40 | **LEKU-KOPURUA** 15 |
| | **SARTZEKO BALDINTZAK** | | | **TOKIA** | |
| | Langabezia-egoeran dauden pertsonei zuzendutako programa bat da, lan-munduan txertatzen lagundu eta langabezia-egoera betikotzea ekiditeko. | | | Behargintza Leioa. | |

| 4 | GIS ETA GRASS | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **QGIS eta GRASS eta GIS sistemen erabilerari buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzea, analisi eta txosten espazialak egiteko informazio bektoriala eta raster datuak zuzen erabiltzeko.** | | | | |
| | **HASIERA-DATA** 2023/11/20 | **AMAIERA-DATA** 2023/12/01 | **ORDUTEGIA** 10:00-14:00 | **IRAUPENA** 40 | **LEKU-KOPURUA** 12 |
| | **SARTZEKO BALDINTZAK** | | | **TOKIA** | |
| | Ingeniaritzaren, biologiaren, topografiaren, geologiaren eta geografiaren arloan, besteak beste, ezagutzak edo esperientzia duten pertsonak, beren ezagutzak eguneratu edo beste sektore profesional batzuetara bideratu nahi dituztenak. | | | Behargintza Leioa. | |

## 5 AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK

**Prestakuntza arauturik ez duten langabeei zuzendutako ikastaroa, azazkalen oinarrizko zainketa estetikoak ahalik eta segurtasunik eta higienerik handienarekin egiteko oinarrizko ezagutzak ahalbidetzeko.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2023/11/06 | 2023/11/24 | 09:30-13:30 | 60 | 16 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Estetikako Zerbitzu Osagarriak Profesionaltasun Ziurtagiriaren prestakuntza-unitate bat da (IMPEO108). Hala, parte-hartzaileek lanbidea ezagutu eta prestakuntzarekin jarrai dezakete, eta identitate profesionala lortu, prestakuntza teoriko-praktikoa amaitu eta gero. | Kanpokoa. |

## 6 ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA ETA OSTALARITZAN ARRETA EMATEKO OINARRIZKO LANAK

**Elikadura-segurtasunerako eta -higienerako oinarrizko ikastaroa. Barran eta mahaietan arreta emateko, eta ardoa, kafea, freskagarriak eta garagardoak zerbitzatzeko oinarrizko ezagutza teoriko-praktikoak. Langile-eskaera handia duen sektore batean sartu ahal izatea da xedea.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2023/12/11 | 2023/12/22 | 10:00-14:00 | 45 | 15 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Nori zuzenduta dago? Udalerrian langabezia-egoeran dauden eta ostalaritzaren sektorean aurre-prestakuntzarik ez duten pertsonei. Eskaera handiko lan-eremuan sartzeko oinarrizko ezagutzak behar dituztenei, hain zuzen. | EHU/UPV. |

## ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA

**Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako prestakuntza, norberaren konturako lan-jarduera bat hasi nahi duten eta ekintzailetza-prozesuari hobeto aurre egiten lagunduko dieten ekintzailetza-trebetasunak landu nahi dituzten pertsonei zuzendua. Prestakuntza honetan, negozio-ideia hobeto aztertu, estrategia on bat lortzeko baliabide komertzialak optimizatu eta zure merkataritza- proiektua eta bideragarritasun ekonomikoa baloratuko dituzu.**

| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | IRAUPENA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|---|
| 2023/11/20 | 2023/11/30 | 09:30-13:30 | 35 | 20 |

| SARTZEKO BALDINTZAK | TOKIA |
|---|---|
| Ikastaro honetan izena emateko, aldez aurretik elkarrizketa bat hitzartu beharko da ekintzailetza-teknikarekin, negozio-ideiaren heldutasun- eta garapen-maila zehazteko eta prestakuntza hasi aurretik behar diren zalantza guztiak argitzeko. | Enpresa mintegia. |

**BEHARGINTZA**
**FORMAKUNTZA ESKAINTZA LEIOA**

Leioa BEHARGINTZA
bit.ly/m/behargintzaleioa

**LEIOAKO UDALA BEHARGINTZA**

Mendibil, 3 48940 Leioa
94 400 41 95 - 94 400 80 51
behargintza@leioa.eus
behargintzaleioa.net
@behargintzaleioa
Behargintza Leioa
@LeioaBg
Leioako Behargintza

# TOKIKO GARAPENERAKO 3R PROGRAMA

**Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasun Sailak lurralde historikoko udalen eta toki garapeneko agentzien bitartez enplegua leheneratzeko programa sustatu du, langabeei lan-munduan txertatzen lagundu eta langabeziaren behin betikotzea ekiditeko xedez.**

**Tokiko garapenerako 3R programak hiru ekintza biltzen ditu: berriz orientatzea, lanpostu berria ematea eta prestakuntza eguneratzea.**

## BERRIZ ORIENTATZEA

Langabeei laguntza integrala ematean datza, enplegua bilatzen laguntzeko. Banan-banako diagnostikoak egingo dira: langabearen ezaugarriak identifikatu eta haren profilari egokitutako lan-ibilbidea diseinatu eta enplegu-bilaketa aktiboan lagunduko zaio.

## LANPOSTU BERRIA EMATEA

Programaren bigarren ekintza honen helburua lan-munduan txertatzen laguntzea da; horretarako, enpresen arteko topaketak eta lan-eskaintzak identifikatuko dira, baita enpresek behar dituzten langileak ere.

## PRESTAKUNTZA EGUNERATZEA

Tokiko Garapeneko 3R programa honen hirugarren eta azken ekintza langabeei oinarrizko gaitasun digitalak irakastea da, 40 orduko prestakuntza-ekintzen bitartez.



| HASIERA-DATA | AMAIERA-DATA | ORDUTEGIA | LEKU-KOPURUA |
|---|---|---|---|
| 2023/10/25 | 2024/03/31 | 9:30-13:30 | 15 |

# IZEN-EMATE FITXA

**IZEN-EMATEA BEHARGINTZA LEIOAN edo behargintzaleioa.net web orrian.**
**Izen-emateak 2023ko irailaren 4tik aurrera egingo dira.**

IZEN-ABIZENAK: ____________________________________________

____________________________________________

NAN: ____________________________________________

TELEFONOA: ____________________________________________

HELBIDE OSOA: ____________________________________________

UDALERRIA: ____________________________________________

HELBIDE ELEKTRONIKOA: ____________________________________________

EGINDAKO IKASKETAK: ____________________________________________

HIZKUNTZA LEHENETSIA: ☐ EUSKARA ☐ GAZTELANIA

BEHARGINTZA LEIOAN APUNTATUTA ZAUDE? ☐ BAI ☐ EZ

## IKASTAROAK (Markatu "X" batekin egin nahi duzun ikastaroa)

1 KONPETENTZIA TEKNIKOAK ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAT

2 TALDE EKINTZAILEAK

3 TOKIKO GARAPENERAKO 3R PROGRAMA

4 GIS ETA GRASS

5 AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK

6 ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA ETA OSTALARITZAN ARRETA EMATEKO OINARRIZKO LANAK